

BADA MINIATURAZKO MUNDU BAT GURE OINEN AZPIAN

Ez diegu jaramonik egiten, baina, adi erreparatuz gero, miniaturazko mundu bat deskubrituko dugu hostoen artean: intsektuak, armiarmak, anelidoak... Ezagutza eta irudiak uztartuz, ornogabeen familian eta naturaren magian murgilduko gaituzte Asier Gorostidi eta Igor Sarralde «Euskal Herriko animaliak. Ornogabeak» liburuaren eskutik.

Animalia batzuk maiztagarriak egiten zaizkigu, eta beste batzuek nazka eragiten digute. Basoan urtxintxa bat ikusiko bagenu, ziur asko argazki bat ateratzen saiatuko ginatke, baina, aldiz, sukaldean armiarma bat topatuko bagenu, erratzarekin uxatuko genuke. Maiz entzungo diogu ume bati «jirafa» edo «izurdea» erantzuten bere animalia faboritoagatik galdetzen zaionean, eta nekez aukeratuko du «inurria» edo «kakaraldea», umeen lehenengo abenturak harrien azpian eta hostoen artean bizi diren intsektuekin zerikusia izan arren. Nork ez du hatzez ornogabe bat harrapatu? Nor ez da izaki ñimiño hori gertutik ezagutzen saiatu?

Gure oinen azpian bada miniaturazko mundu bat, begirada mikroskopikoarekin behatuz gero harrিতuta utziko gaituena. Izakioz inguratuta gaude, milioika daude gure baratzeetan, erreka zein mendietan, baina guztiz ezezagunak zaizkigu patxadaz begiratzera gelditzen ez garelako. Horiengana hurbildu, atxikitzen zaizkien mito asko deuseztatu eta zientzia fikzioa diruditen bitxikeriak zabaldu asmoz osatu dute Asier Gorostidi eta Igor Sarralde irudigileek «Euskal Herriko animaliak. Ornogabeak» (Erein) liburua, ugaztunekin 2020an abiatu zuten lanaren segida.

Proiektua abiatu zenean banaketa egitea izan zen zailena eta, behin ornodunak eta ornogabeak bereiztea erabakita, bigarren ale-

arekin zein sartu eta zein kanpoan utzi delibatatzea izan da koska, milioika daude eta. Intsektuak, araknidoak, krustazeoak, moluskuak eta anelidoak daude, besteak beste. Guztira, 70 inguru sartu dituzte bigarren ale honetan. Liburuaren xarma irudietan dago, baita espezie bakoitzeko informazioa emateko moduan ere. «Zientziaren eta naturaren logikak azaltzea da xedea, baina zientzia liburu batetik urrunduz. Faltan sumatzen genuen liburu bat egin dugu. Izan ere, animaliei buruzko liburu asko daude, baina teknikoak izaten dira, eta ez dira erraz irakurtzekoak. Kontsultarako izaten dira beste ezer baino gehiago», uste du Gorostidik.

Bi egileen jatorria Arte Ederren Fakultatean dago, horrela ulertzen da irudien distira.

Akuarelez eta koloretako arkatzez eginak daude, teknika digitaletatik erabat urrunduta. Eta lau eskuaren artean eginda egon arren, ezinezkoa da nork egin duen zein jakitea. Bata bestearen estilora hurbilduz egin dutela kontatzen dute, erdibide batean topo egin dutela, moduak uztartuz.

Aurreko lanarekin alderatuta, oraingo honetan erronka animalia txikiok dituzten ezaugarri bereziak irudikatzea izan da, hala nola, kakarraldoen distirak, armiarmen iletxoak, ehunzangoen hankatxoak, tximeleten antenatxoak edo ezkatatxoak. «Animalia bat hain gertutik ikustean, begirada mikroskopikoarekin, konturatzen zara benetan nolakoak diren, eta gauza mordoa deskubritzen dituzu. Hori oso polita da», uste du Gorostidik.

ZIENTZIA FIKZIOA

Oro har erakargarriak egiten ez zaizkigun izaki bizidunak badira ere, ornodunen familiek baina bitxikeria gehiago dituen taldea da ornogabeena. Bizirauteko dituzten estrategiak, emeak erakartzeko arren trikimailuak, edo ugaltzeko dituzten erak eta moduak; batzuk «sinesgaitzak» direla iritzi du Gorostidik.

Ba al zenekien matxinsaltoak entzumen organoak hanketan dituela? Eta armiarmatxoak jaio eta handik gutxira hiltzen dela haien ama? Hosto zorri emeak gaitasuna du arrautzak bakarrik

ERREPORTAJEA



Oihane LARRETxea



Goitik behera, kuruminoa, ur kakarraldea, ipurtargia eta pauma tximeleta. Horiek eta beste ornogabe asko topa daitezke liburuan.

Asier GOROSTIDI - Igor SARRALDE

erruteko, arraren beharrik gabe, eta barraskiloak hilabeteak pasa ditzake elikatu gabe. Arkanbelea kakarraldea bost urte ematen ditu hildako enbor baten barnean larba itxurarekin eta heldua denean irteten da. Gero, hilabete eskas baino ez du iraungo bizirik. Ugalduta gero, marisorgin (*Mantis religiosa*) emeak arra jaten du, baina batzuetan ez du amaitu arte itxoinen; arrari burua moztu eta hura jaten hasten da, buru gabeko arrak ugaltzen segitzen duen bitartean... «Zientzia fikzioa dirudi, ezta?», dio.

Hamaika bitxikeria jaso dituzte, eta behin hasita bata bestearen atzetik irakurtzeko gogo pizten zaio irakurleari. Bitxikerion bidez bi helburu bete nahiko lituzkete. Batetik, eduki zientifikoa memorian hobeto gordetzea. Gorostidi irakaslea da, eta esperientziak erakutsi dio halako datu xelebreak ematean ikasleek hobeto gogoratzen dituztela ikasi beharrekoak; are gehiago, informazioa partekatzeke interes handiagoa ere pizten du haiengan. Bestetik, animalia «politena eta itsusien arteko etiketak» ezabatzea dute xede. «Animalia guztiak sortzen dituzte onurak, eta denak dira beharrezkoak oreka

mantentzeko. Eskorpioia arrisksutzat dugu pozoia duelako, baina ez da joango zuri kalte egitera, eta, adibidez, kontatzen dugu nola

eramaten dituzten kumeak bizkarrean.

‘B aldea’ erakusten saiatu gara,

zeren animalia hauen itxura alde batera utzita, benetan dira harrigarriak. Duten itxura, kolorea, tamaina... naturan guztiak du azalpena».

